

7- BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure produktua, kondoi berritzaile bat dela jakinda eta haren funtzio berezia kontuan hartzen badugu, logikoa litzateke gure bezeroekiko harremana pertsonala izatea. Harreman pertsonalak, laguntza eta laguntza pertsonal eskainia batzen ditu.



Harreman hori lortzeko, gure produktua dendetan nahiz internet bidez salduko da. Lehenengo adibidean, bezeroak, zuzenean erosteko aukera izango dute eta produktuari buruzko dituzten zalantzak galdetzeko aukera ere bai. Horrela bezeroei segurtasuna transmititzeko. Hainbat denda mota daudenez, ulergarria litzateke denda guztietan harreman bera ez egotea, adibidez, farmazien kasuan, saltzaileak, saltzen dituen produktuen berri izan behar du eta horrela harremana pertsonalagoa bihurtzen da.

Bigarren kasua, internet bidez saltzea litzateke. Baina ez edonola, hau da, gure orri printzipalean enpresaren informazio guztia aurkitzeko aukera egongo da. Izan ere, orri printzipaleko atal batean, gure produktu guztien berri izateko aukera egongo litzateke, eta haren prezio guztiak ere bai. Gainera, bezeroek, gure produktuarekin zer ikusia dituzten zalantzak baldin badituzte, txat pribatu batez baliatzeko aukera izango dute.

Gure produktua ez da eksklusiboa, mota guztietako erosleentzako egokia izaten sailatzen du. Izan ere, gure produktuaren eta mota honetako gainerako produktuen arteko irisgarritasun-ardea oso txikia da, eta prezio-eskaintza txiki horren ordez gizarte-laguntza eskaintzen dugu.

Horretaz gain, bezeroek gure produktuak edukiko duen etorkizunarekin eginkizun garrantzitsu bat izango dute, hau da, crowdfunding-aren bitartez gure produktua finantzatzeko aukera izango dute eta ordainetan enpresaren zati garrantzizko bat bilakatuko liratekete.

Crowdfunding proiektuak lagunduko digu gure enpresa aurrera eramateko, izan ere diru asko behar da enpresa bat hasteko eta ez daukagu hainbeste, orduan maileguak

egiteaz gain finantza iturri hau aplikatu nahi dugu, horrela jendea bakarrik kantitate txiki bat ipintzen lagundu ahal digu.

Bezeroak arazo bat izaten badu (kondoia deformazio bat izatea edo gaizki eginda izatea) gurekin pertsonalki web orriaren bidez kontaktatu ahal dute, horrela guk konpontzeko aukera izango dugu, bezeroa tratu ona eta pertsonala izateko, ere bai gure produktua saltzen den dendetara joan ahal zara eta dendariari esan, gero berak gure informatuko baitigu.